



ICA

CONSEIL INTERNATIONAL DES ARCHIVES
INTERNATIONAL COUNCIL ON ARCHIVES

ISAD (G)

DESKRIBAPEN ARTXIBISTIKORAKO
NAZIOARTEKO ARAU OROKORRA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

CONSEIL INTERNATIONAL DES ARCHIVES
INTERNATIONAL COUNCIL ON ARCHIVES

ISAD (G)

DESKRIBAPEN ARTXIBISTIKORAKO NAZIOARTEKO ARAU OROKORRA

Deskribapen Arauen Batzordeak xedatua
Stockholm, Suedia, 1999ko irailaren 19-22

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2012

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

- Argitaraldia:** 1.a, 2012ko urtarrila
- Ale-kopurua:** 300 ale
- Argitaratzailea:** Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastian 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
- Itzulpena:** Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala (IVAP)
- Honen itzulpena:** *ISAD(G) International Standard Archival Description*, 2000
- Fotokonposaketa:** Composiciones Rali, S. A.
Costa 12-14, 7^a - 48010 Bilbao
- Inprimaketa:** Eusko Jaurlaritzaren Inprenta eta Erreprografia Zerbitzua
- ISBN:** 978-84-457-3206-9
- Lege-gordailua:** VI 63-2012

© International Council on Archives

© Edizio honena: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa. Kultura Saila
Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Departamento de Cultura

Jatorrizko dokumentua ingelesezkoa da. Itzulpen hau erreferentziako dokumentua besterik ez da.
Ez da Artxiboen Nazioarteko Kontseiluaren dokumentu ofiziala.

AURKIBIDEA

HITZAURREA	7
SARRERA	9
0. ARAUAN ERABILITAKO TERMINOEN GLOSARIOA	12
1. MAILA ANITZEKO DESKRIBAPENA	14
1.1. Sarrera	14
2. MAILA ANITZEKO DESKRIBAPENERAKO ARAUAK	14
2.1. Orokorretik espezifikorako deskribapena	14
2.2. Deskribapen-mailari dagokion informazioa	14
2.3. Deskribapenen arteko loturak	14
2.4. Informazioa ez errepikatzea	14
3. DESKRIBAPENAREN ELEMENTUAK	15
3.1. Identifikazioaren eremua	15
3.1.1. Erreferentzia-kodea(k)	15
3.1.2. Izenburua	16
3.1.3. Data(k)	18
3.1.4. Deskribapen-maila	19
3.1.5. Deskribapen-unitatearen tamaina eta euskarria (kopurua edota neurriak)	19
3.2. Testuinguruaren eremua	21
3.2.1. Ekoizle(ar)en izena(k)	21
3.2.2. Korporazio(ar)en historia/Datu biografikoak	22
3.2.3. Historia artxibistikoa	24
3.2.4. Sarrerari buruzko datuak	26
3.3. Edukiaren eta egituraren eremua	27
3.3.1. Garrantzia eta edukia	27
3.3.2. Balioespena, hautaketa eta suntsipena	29
3.3.3. Eskuratzekoak	30
3.3.4. Antolakuntza	31
3.4. Irispidea izateko eta erabiltzeko baldintzen eremua	32
3.4.1. Irispidea izateko baldintzak	32
3.4.2. Kopiai egiteko baldintzak	33
3.4.3. Dokumentuen hizkuntza(k)/idazkera(k)	34
3.4.4. Ezaugarri fisikoak eta betekizun teknikoak	35
3.4.5. Dokumentuak lokalizatzeko baliabideak	35
3.5. Erlazionatutako dokumentazioaren eremua	37
3.5.1. Jatorrizko dokumentuei buruzko informazioa	37
3.5.2. Kopiei buruzko informazioa	38
3.5.3. Erlazionatutako deskribapen-unitateak	38
3.5.4. Argitalpeni buruzko oharra	40

3.6. Oharren eremua	41
3.6.1. Oharrak	41
3.7. Deskribapenaren kontrolaren eremua	41
3.7.1. Artxibozainaren oharra(k)	41
3.7.2. Erregelak edo arauak	42
3.7.3. Deskribapen(ar)en data(k)	43
A-1 ERANSKINA	44
<i>Funtsen antolakuntzaren mailen eredua</i>	
A-2 ERANSKINA	45
<i>Deskribapen artxibistikoen eta autoritate-sarrereren arteko erlazioak</i>	
B ERANSKINA	46
Adibide osoak	
– Korporazio baten funtsa: funtsaren eta haren serieetako, azpiserieetako, azpi-azpiserieetako, dokumentu-unitate konposatueta eta dokumentu-unitate bakunetako baten deskribapena. Deskribapenaren hizkuntza: ingelesa (Kanada)	47
– Pertsona fisiko baten funtsa: funtsaren eta haren bi serieren, azpiserie eta dokumentu-unitate konposatu baten, eta dokumentu-unitate bakun biren deskribapena. Deskribapenaren hizkuntza: ingelesa (Kanada)	52
– Korporazio baten funtsa: funtsaren, eta haren serieetako, azpiserieetako, dokumentu-unitate konposatueta eta dokumentu-unitate bakunetako baten deskribapena. Deskribapenaren hizkuntza: ingelesa (Kanada)	56
– Pertsona fisiko baten funtsa: funtsaren eta haren serieetako eta dokumentu-unitate konposatueta baten deskribapena. Deskribapenaren hizkuntza: ingelesa (AEB).....	60
– Korporazio baten funtsa: funtsaren eta haren serieetako eta dokumentu-unitate bakunetako baten deskribapena. Deskribapenaren hizkuntza: ingelesa (AEB)	63
– Familia baten funtsa (familia-dokumentazioa): funtsaren eta haren serieetako eta dokumentu-unitate konposatueta baten deskribapena. Deskribapenaren hizkuntza: ingelesa (AEB).....	65
– Pertsona fisiko baten funtsa: funtsaren eta haren serieetako baten deskribapena. Deskribapenaren hizkuntza: ingelesa (Australia).....	67
– Korporazio baten funtsa: funtsaren eta haren serieetako eta dokumentu-unitate konposatueta baten deskribapena. Deskribapenaren hizkuntza: ingelesa (Australia).....	70
– Pertsona fisiko baten funtsa: funtsaren eta haren azpifuntsetako, serieetako, dokumentu-unitate konposatueta eta dokumentu-unitate bakunetako baten deskribapena. Deskribapenaren hizkuntza: frantsesa (Frantzia).....	79
– Pertsona fisiko baten funtsa: funtsaren eta haren azpifuntsetako eta dokumentu-unitate konposatueta baten deskribapena. Deskribapenaren hizkuntza: italiara	82
– Korporazio baten funtsa: funtsaren eta haren serieetako eta dokumentu-unitate konposatueta baten deskribapena. Deskribapenaren hizkuntza: italiara	86
– Korporazio baten funtsa: funtsaren eta haren serieetako eta dokumentu-unitate bakunetako baten deskribapena. Deskribapenaren hizkuntza: portugesa (Brasil).....	90
– Korporazio baten funtsa: funtsaren eta haren azpifuntsetako, serieetako eta dokumentu-unitate konposatueta baten deskribapena. Deskribapenaren hizkuntza: gaztelania (Espainia)	93
– Bilduma baten eta haren dokumentu-unitate baten deskribapena. Deskribapenaren hizkuntza: gaztelania (Espainia).....	101

HITZAURREA

- P1.** Artxiboen Nazioarteko Kontseiluaren (ICA¹) Deskribapen Arauen ad hoc Batzordea (ICA/DDS²), ISAD(G) prestatu baitzuen, batzorde iraunkor bihurtu zen ICAk Pekinen (Txina) 1996an egin zuen Artxiboen Nazioarteko Biltzarrean. Gaur egungo Deskribapen Arauen Batzordeak (ICA/CDS³) 1996-2000ko laurteko egitarauaren eginkizun nagusitzat ezarri zuen ISAD(G) araua berrikustea (Ottawa, 1994).
- P2.** ISAD(G)ren bigarren edizio hau 1994ko edizioaren hitzaurrean aurreikusita zegoen berrikustelanaren ondorioa dugu, bertan bost urterik behin berrikusiko zela ezarri baitzen. 1998. urtearen hasieran berrikusketarako oharrak bidaltzeko gonbidapena egin zitzaion artxibistikako nazioarteko komunitateari. Horretarako, gutunak bidali zitzaizkien ICAko kide diren erakunde eta elkarte guztiei, bai eta ICAREN barruan garrantzitsuak diren hainbat atal antolatzaile ere. Era berean, ICAREN Interneteko webgunea eta posta-zerrenda erabili ziren iragarpena egiteko. Oharrak bidaltzeko epea 1998ko irailaren 15ean amaitu zen, Batzordearen bigarren osoko bilkuran ekin nahi baitzitzaion berrikustelari.
- P3.** 1998ko irailaren amaierarako ICA/CDSko Idazkaritzak gutxi gorabehera 33 erantzun jasoak zituen lau kontinenteetako 25 herrialdeetako batzorde nazional, organizazio eta profesionalengandik. ISAD(G) berrikusteko iruzkinak 101 orrialdeko laburpen batean bildu ziren (Compendium of Comments ISAD(G) Review). Laburpen hori Batzordeko kide guztiei bidali zitzairen eta huraxe izan zen ICA/CDSren bigarren osoko bilkuraren lanerako abiaburu.
- P4.** ICA/CDSren bigarren osoko bilkura 1998ko urriaren 19tik 22ra bitartean izan zen Hagan, eta, jasotako iruzkinak lan-oinarri izan zirelarik, ISAD(G)ren berrikuspenaren lehenengo zirriborroa prestatu zen bertan. Zirriborro hura Batzordeko kideei banatu eta posta bidez eman zitzaizkion azken ukituak. Proiektua Batzordearen hirugarren osoko bilkuran amaitu zen Stockholmen, Suedian, eta 2000. urtearen hasieran inprimatzera bidali zen, 2000ko irailean Sevillan (Espainia) izango zen Artxiboen Nazioarteko XIV. Biltzarrean erabili ahal izateko.

Ondoren adierazten dira, 1996-2000 denboraldian Batzordeko kide izanik, berrikusketa-lanean parte hartu duten ICAREN Deskribapen Arauen Batzordeko kideen izenak (letra etzanean ageri direnak ICA/DDSko kide izandakoak dira):

<i>Victoria Arias</i> (Espainia)	1996-1998
Elisa Carolina de Santos Canalejo (Espainia)	1998-
Adrian Cunningham (Australia)	1998-
<i>Jan Dablin</i> (Suedia)	1996-
Vitor Manoel Marques da Fonseca (Brasil)	1996-
Michael Fox (AEB)	1996-
<i>Ana Franqueira</i> (Portugal)	1996-
Bruno Galland (Frantzia)	1996-
Kent Haworth (Kanada)	1996-
Ma Jinghua (Txina)	1996-
<i>Christine Nougaret</i> (Frantzia) <i>lehendakaria</i>	1996-
Dagmar Parer (Australia)	1999-

¹ ICA: International Council on Archives.

² ICA/DDS: Ad Hoc Commission on Descriptive Standards.

³ ICA/CDS: Committee on Descriptive Standards.

Lydia Reid (AEB)	1996-1998
<i>Hugo Stibbe</i> (Kanada) <i>proiektuaren zuzendaria eta idazkaria</i>	1996-
Stefano Vitali (Italia)	1996-
Debra Wall (AEB)	1996-1998

Osoko bilkuraren batean edo gehiagotan parte hartu zutenak:

Asunción de Navascués Benlloch (Espainia)
 Eeva Murtomaa (Finlandia) *IFLA⁴rekiko bitartekaria*
 Per-Gunnar Ottosson (Suedia)

ICAKo Deskribapen Arauen Batzordeak (ICA/CDS) osoko bilkurak eta azpibatzerdeen bilerak egiteko emandako laguntza eskertzen die honako erakunde hauei:

Archives de France (Paris) (2 aldiz)
 Archivio di Stato di Firenze (Florentzia, Italia)
 Arquivos Nacionais / Torre do Tombo (Lisboa, Portugal)
 Landsarkivet (Stockholm, Suedia) (2 aldiz)
 Rijksarchiefdienst (Haga, Herbehereak)
 The National Archives of Canada (Ottawa, Kanada), ICAREN deskribapen arauen bigarren laurteko lanaldian Idazkaritzari laguntza eman baitzion.

Erakunde horiek bilkurak egiteko emandako laguntza, bai dirutan bai baliabide logistiko eta zerbitzutan, ezinbestekoa izan da arau hau prestatzeko orduan.

⁴ IFLA: The International Federation of Library Associations and Institutions (Liburutegien Elkarte eta Erakundeen Nazioarteko Federazioa).

SARRERA

- I.1. Arau hau deskribapen artxibistikoa egiteko gida orokor bat dugu. Araua tokian toki diren arauekin batera erabili behar da edo, halakorik ez bada, tokian tokiko arauak prestatzeko oinarri gisa.
- I.2. Deskribapen artxibistikoaren helburua da artxibo-dokumentuen testuingurua eta edukia identifikatu eta azaltzea, horrela, dokumentuetara irispidea izateko. Horretarako, aurrez ezarritako ereduak eta horiei egokitutako adierazle zehatz eta egokiak beharrezko dira. Deskribapenaren prozesuak dokumentuak ekoizteko orduan nahiz ekoiztu aurretik has daitezke eta dokumentuen bizi-ziklo guztian zehar jarrai daitezke. Prozesu horien bitartez deskribapenak fidagarriak, benetakoak, adierazgarriak eta irisgarriak, eta denboran aurrera baliagarriak izan daitezen beharrezko diren kontrol intelektualak ezar daitezke.
- I.3. Artxiboetako dokumentuen kudeaketaren fase bakoitzean (esaterako, ekoiztea, hautatzea, irispidea izatea, kontserbatzea, antolatzea) informazio-elementu berariazkoak behar dira dokumentuok behar bezala babestu eta kontrolatzeko, bai eta egoki denean kontsultatzeko eskubidea duenak irispidea izan dezan ere. Deskribapen artxibistikoa, hitzaren zentzurik zabalenean hartuta, informazioaren elementu guztiei dagokie, alde batera utzirik elementu hori identifikatu edo ezartzen den kudeaketa-aldia. Dokumentuen bizi-zikloan, dokumentuei buruzko informazioa dinamikoa da eta zuzenketak egin daitezke dokumentuaren edukiari edota ekoizpeneko testuinguruari buruzko ezagutza areagotzearen. Ildo horretan, informazio-sistema automatizatuak baliagarriak izan daitezke bai beharrezko diren informazio-elementuak aukeratu eta sartzeko orduan, bai eta eguneratu edo aldatzeko orduan ere. Arau hauen xede nagusia artxibo-dokumentuak kontserbatzeko aukeratzen direnetik aurrera deskribatzea bada ere, aldez aurreko aldietan ere erabil daitezke.
- I.4. Arau honetan deskribapen artxibistikoa egiteko biltzen diren erregela orokorrak dokumentu-mota eta euskarri guztietarako erabil daitezke. Arau honetako erregelatan ez da ezartzen jarraibiderik dokumentu bereziak, hala nola zigiluak, soinu-grabazioak edo mapak deskribatzeko. Halako materiala deskribatzeko berariazko arauak ezartzen dituzten gidaliburuak daude. Arau horiek honako honekin batera erabil daitezke material-mota horiek egoki deskribatzeko.
- I.5. Deskribapen artxibistikorako arau-multzo hau prozesu jakin baten barruan kokatu beharra dago, prozesu horren bidez honako helburu hauek bete nahi direlarik:
 - a) deskribapenak koherenteak, egokiak eta esplizituak izan daitezela ziurtatzea;
 - b) artxibo-dokumentuei buruzko informazioa berreskuratzea eta trukatzea erraztea;
 - c) autoritate-datuak partekatu ahal izatea; eta
 - d) hainbat lekutan sortutako artxibo-deskribapenak informazio-sistema bateratu batean bildu ahal izatea.
- I.6. Helburu horiek guztiak betetzeko, arauak hogeita sei (26) elementu ezartzen eta zehazten dituzte; elementu horiek euren artean konbinatu daitezke entitate artxibistiko baten deskribapena osatzeko. Elementu horietako informazioaren egitura eta edukia herrialde bakoitzak ezarrita dituen arauak egokitu beharko zaizkie. Arau *orokorrak* direnez, artxiboak deskribatzeko orduan ahalik eta modurik zabalenean erabiltzeko modukoak izan nahi dute, kontuan izan gabe deskribatu beharreko deskribapen-unitatearen neurria edo ezaugarriak. Edonola ere, arauak ez du zehazten elementu horien edizio-formaturik, ezta inbentarioetan, katalogoetan, zerrendetan eta abarretan agertu behar duten moldea.

- I.7.** Deskribapen artxibistikorako arauak onartutako zenbait printzipio teorikotan dute oinarria. Adibidez, deskribapen artxibistikoak orokorretik espezifikora izan behar duela dioen printzipioa funtsen jatorrizko egiturarekiko errespetuaren printzipioaren⁵ ondorio praktikoa dugu. Printzipio hori aintzat hartu beharra dago beti deskribapen artxibistikorako erabilera orokorreko egitura eta sistema bat egin nahi izanez gero, eskuz lantzekoa nahiz automatikoa izan, betiere Artxibo jakin baten deskribapenerako baliabideek baldintzatuko ez duena.
- I.8.** A-1 eranskinean funts bat eta funts hori osatzen duten zatiak antolatzeko mailen eredu hierarkikoa eskaintzen da, Batzordeak prestatua. Deskribapen-maila bat baino gehiago dago eta maila bakoitzean neurri ezberdineko xehetasunak jasotzen dira, antolakuntzaren maila bakoitzaren arabera. Adibidez, funtsak osorik hartuta deskriba daitezke deskribapen bakarrean edo, bestela, funts osoa eta berorren zatiak deskribapen-maila ezberdinetan deskriba daitezke. Funtsarena da deskribapen-mailarik zabalena, eta zatienak azpiko mailak; izan ere zatien deskribapena erabat adierazgarria izan dadin ezinbestekoa da funts osoaren deskribapenaren testuingurua kontuan hartzea. Horrela bada, funts-mailako deskribapenak egon daitezke, serie-mailakoak, dokumentu-unitate konposatuaren mailakoak eta dokumentu-mailakoak. Orobat tarteko mailako deskribapenak egin daitezke, hala nola, azpifuntsenak edota azpiserieenak. Adierazitako mailetako bakoitza zatikatu egin daiteke artxibo-dokumentuak ekoiztu zituen korporazioaren eginkizunen eta egitura administratiboaren konplexutasunaren arabera, bai eta dokumentuen antolaketaren beraren arabera ere. A-2 eranskineko ereduaren ekoizle(ar)en eta deskribapen-unitateen arteko erlazio konplexuak azaltzen dira, alde batera utzita deskribapen-maila; ikustea besterik ez dago ISAAR(CPF)⁶ arauak ezarritako autoritate-sarrerak adierazten dituzten laukiak eta lauki horien, batetik, eta, bestetik, funtsaren eta funts-zatien deskribapenaren unitateak adierazten dituzten laukien arteko erlazioak. B eranskinean deskribapen artxibistikoaren adibide osoak nahiz deskribapenaren zati batzuenak bildu dira.
- I.9.** Arau bakoitzean honako hau jasotzen da:
- arauak ezartzen duen deskribapen-elementuaren izena;
 - deskribapenean elementu hori zertarako jasotzen den;
 - elementuari ezarri beharreko arau orokorr(ar)en azalpena; eta
 - komenigarria denean, arauen erabilera argitzen duten adibideak.
- I.10.** Paragrafoen zenbakiak erreferentzia gisa erabili behar dira, ez deskribapenaren elementuak izendatzeko.
- I.11.** Arauetan ezarritako deskribapena zazpi informazio-eremutan antolatuta dago:
- Identifikazioaren eremua
(deskribapen-unitatea identifikatzeko oinarritzkoa den informazioa jasotzen du)
 - Testuinguruaren eremua
(deskribapen-unitatearen jatorriari eta zaintzari buruzko informazioa jasotzen du)
 - Edukiaren eta egituraren eremua
(deskribapen-unitatearen gaiari eta antolakuntzari buruzko informazioa jasotzen du)
 - Irispidea izateko eta erabiltzeko baldintzen eremua
(deskribapen-unitatearen irisgarritasunari buruzko informazioa jasotzen du)
 - Erlazionatutako dokumentazioaren eremua
(deskribapen-unitatearekin lotura esanguratsua duten dokumentuei buruzko informazioa jasotzen du)

⁵ Horren arabera, arau berberak erabil daitezke funts bat eta hura osatzen duten zatiak deskribatzeko, eta bilduma bat deskribatzeko.

⁶ ISAAR(CPF): International Standard Archival Authority Record for Corporate Bodies, Persons and Families (Korporazio, pertsona eta familien artxiboetarako autoritate-erregistroei buruzko nazioarteko araua).

6. Oharren eremua
(informazio berezia eta aurreko eremuetan azaldu ezin izan den informazioa jasotzen du)
7. Deskribapenaren kontrolaren eremua
(deskribapen artxibistikoa nola, noiz eta nork egin duen adierazteko eremua)

I.12. Deskribapen-unitateak deskribatzerakoan, arau orokor honetan biltzen diren hogeita sei elementuak, hau da, denak, erabil daitezke, baina bakar batzuk baino ez dira kasu guztietan nahitaez erabili beharrekoak. Deskribapeneko informazioa nazioartean trukatzeko, soilik honako elementu hauek jotzen dira ezinbestekotzat:

- a) erreferentzia-kodea(k);
- b) izenburua;
- c) ekoizle(ar)en izena(k);
- d) data(k);
- e) deskribapen-unitatearen tamaina: eta
- f) deskribapen-maila.

ISAD(G)ren testuan azaltzen diren adibideak argibide gisa jarrita daude eta ez dira arau. Dagozkien arauetan ezarritakoa argitzen dute, baina ez dituzte arauok hedatzen. Ez adibideak, ezta adibideak aurkezteko modua ere, ez dira jarraibidetzat hartuko. Testuingurua argitzeko, adibide bakoitzaren ondoren, adibideari dagokion deskribapen-maila adierazita dago letra etzanean eta parentesi artean. Ondorengo lerroan, adibidea erakusteko edo hornitzeko erabili den deskribapen-unitatea zaintzen duen erakundearen izena ageri da, letra etzanean hori ere. Ondoren, argigarri izan daitezkeen beste ohar batzuk gehi daitezke, letra etzanean, aurretik **Oharra:** hitza jarrita. Adibidea ez da nahastu behar, ez deskribapen-mailarekin, ez adibidearen iturriarekin, ezta bestelako ezein oharrekin ere.

I.13. Deskribapen artxibistikoak ezinbesteko dituen elementuez gain jaso beharreko elementu-kopurua deskribapen-unitatearen ezaugarrien araberakoa izango da.

I.14. Sarrerak deskribapenaren elementuetan oinarritzen dira. Sarreren balioa autoritate-sarreren kontrolaren bitartez bermatzen da. Sarrerek informazioa berreskuratzeko orduan duten garrantzia kontuan izanik, ICAk beste arau bat prestatu du, *Korporazio, pertsona eta familien artxiboetarako autoritate-erregistroei buruzko nazioarteko araua: ISAAR(CPF)*. ISAAR(CPF) arauak deskribapen artxibistikoa korporazioak, pertsonak edo familiak entitate ekoizle gisa azaltzen diren kasuetarako autoritate-sarrerak ezartzeko arau orokorrak ematen ditu. Bestelako sarrerak eratzeko erabili beharreko hiztegi eta arauak dagokienez, herrialde bakoitzak edota hizkuntza bakoitzak bereak ezarri beharko ditu. Hizkuntza kontrolatuak sortu eta mantentzeko, baliagarri izango dira ISOren honako arau hauek: **ISO 5963**⁷ *Documentation — Methods for examining documents, determining their subject and selecting indexing terms*, **ISO 2788**⁸ *Documentation — Guidelines for the establishment and development of monolingual thesauri* eta **ISO 999**⁹ *Information and documentation — Guidelines for the content, organization and presentation of indexes*.

I.15. Deskribapenaren edozein elementutan egin beharreko aipamen bibliografikoek honako arau honen bertsio eguneratua bete beharko dute: **ISO 690**¹⁰ *Documentation — Bibliographic references — Content, form and structure*.

⁷ ISO 5963 Dokumentazioa — Dokumentuak aztertze, edukia zehazte eta indexatzeko terminoak aukeratzeko metodoak.

⁸ ISO 2788 Dokumentazioa — Thesaurus elebakarrak ezarri eta garatzeko jarraibideak.

⁹ ISO 999 Informazioa eta dokumentazioa — Aurkibideen eduki, antolakuntza eta aurkezpeneko jarraibideak.

¹⁰ ISO 690 Dokumentazioa — Aipamen bibliografikoak — Edukia, forma eta agitura.

0. ARAUAN ERABILITAKO TERMINOEN GLOSARIOA

0.1. Ondoren ageri diren terminoak eta definizioak deskribapen-arauen atal bat dugu. Definizioak beren-beregi lan honetarako idatzi dira eta horrela ulertu behar dira.

Antolakuntza. Dokumentuak printzipio artxibistikoaren arabera aztertzean eta antolatzean datzan prozesu fisiko eta intelektualak, bai eta prozesuaren emaitza bera ere. (*Arrangement*)

Artxibo-dokumentu. Edozein euskarritan eta edozein dokumentu-motatan jasotako informazioa, edozein pertsona fisiko edo juridikok bere eskumenen betekizunean edota bere jardunean ekoiztu, jaso eta gordea. (*Record*)

Autoritate-sarrera. Ikus ISAAR(CPF)ren glosarioa. (*Authority control*)

Azpifunts. Elkarren artean erlazionatuta dauden dokumentuez osatutako funtsaren zati bat, funtsa eratu duen korporazio edo erakundearen zatiketa administratiboekin bat datorrena edota, halakorik ez dagoenean, dokumentazioarekin berarekin lotutako banaketa geografikoek, kronologikoek, funtzionalek edo antzekoek eragindakoa. Ekoizleak egitura hierarkiko konplexua izaten duenean, azpifunts bakoitzak ere menpeko azpifuntsak izango ditu, hain zuzen ere menpeko administrazio-atalaren egitura hierarkikoaren maila-kopurua bezainbeste. (*Sub-fonds*)

Balioespen. Artxibo-dokumentuak kontserbatzeko egutegia ezartzeko erabiltzen den prozedura. (*Appraisal*)

Bilduma. Jatorria kontuan izan gabe, ezaugarri komun baten arabera bildutako dokumentu-multzo artifiziale. Ez da funtsarekin nahastu behar. (*Collection*)

Deskribapen artxibistiko. Deskribapen-unitate baten eta, hala badagokio, hura osatzen duten zatien adierazpen zehatza, artxibo-dokumentuak nahiz dokumentuon testuingurua eta ekoizpenaren sistema identifikatzeko, kudeatzeko, aurkitzeko eta azaltzeko baliagarri den informazioa bildu, aztertu, antolatu eta erregistratuz eratutakoa. Termino horren bitartez adierazten da prozesu horren guztiaren emaitza bera ere. (*Archival description*)

Deskribapen-maila. Deskribapen-unitateak funtsaren hierarkian duen kokapena. (*Level of description*)

Deskribapen-unitate. Unitate gisa hartzen den dokumentua edo dokumentu-multzoa, edozein molde fisikokoa, deskribapen bakarraren helburu dena. (*Unit of description*)

Dokumentu. Eraren batean erregistratuta geratu den informazioa, edozein delarik berorren euskarria edo ezaugarriak. (*Document*)

Dokumentuak lokalizatzeko baliabide. Dokumentuen kontrol administratibo edo intelektualaren jardunean artxibo-zerbitzu batek egindako edo jasotako edozein deskribapen edo erreferentzia-baliabide izendatzeko termino generikoa. (*Finding aid*)

Dokumentu-mota. Antzeko ezaugarri fisikoak izatea (adibidez, urmargoak, marrazkiak) edota antzeko ezaugarri intelektualak izatea (adibidez, egunkariak, dietarioak, akta-liburuak) bereizgarri duen dokumentu-kategoria. (*Form*)

Dokumentu-unitate bakun. Intelektualki zatitu ezin den artxibistika-unitaterik txikiena, adibidez, gutun bat, txosten bat, argazki bat edo soinu-grabazio bat. (*Item*)

- Dokumentu-unitate konposatu.** Ekoizleak bere erabilera arrunterako edota artxiboak antolatzeko prozesuan bertan, gai, jarduera edo arazo berari buruzkoak direlako batera bildutako dokumentu-unitate antolatua. Dokumentu-unitate konposatua da, oro har, seriearen oinarritzko unitatea. (*File*)
- Egile.** Dokumentu baten eduki intelektualaren erantzulea den pertsona fisikoa edo korporazioa. Ez da ekoizlearekin nahastu behar. (*Author*)
- Ekoizle.** Bere jardunean dokumentuak ekoiztu, bildu eta kontserbatu dituen korporazioa, familia edo pertsona. Ez da bildumagilearekin nahastu behar. (*Creator*)
- Eskuratu berri.** Artxibo bateko deskribapen-unitate baten osagarria izanik hari gehitzen zaion alea. (*Accrual*)
- Espediente.** (*File*). Ikus Dokumentu-unitate konposatu.
- Euskarri.** Erregistratutako informazioa jasotzen edo eusten duen materia fisikoa, adibidez, buztinezko ohola, papiroa, papera, azaleztatutako liburukia, pergaminoa, filma, zinta magnetikoa eta abar. (*Medium*)
- Funts.** Dokumentu-multzoa, edozein mota nahiz euskarritakoa, organikoki ekoiztutakoa edota pertsona fisiko batek, familia batek edo korporazio batek bere jardunean bildu edo erabilitakoa. (*Fonds*)
- Irisgarritasun.** Funts bateko materiala erabiltzeko ahalmena, oro har, arau eta baldintza jakin batzuek mugatutakoa. (*Access*)
- Izenburu.** Deskribapen-unitatea izendatzeko erabiltzen den hitza, esaldia, karakterea edo karaktere-multzoa. (*Title*)
- Izenburu esleitu.** Izenburu formalik ez duen deskribapen-unitateari artxibozainak berak emandako izenburua. (*Supplied title*)
- Izenburu formal.** Deskribatu beharreko dokumentuan bertan toki agerian azaltzen den izenburua. (*Formal title*)
- Jatorri.** Dokumentuen eta dokumentuok ekoiztu, bildu, gorde eta erabili dituzten pertsona juridikoen edo fisikoen arteko erlazioa. (*Provenance*)
- Korporazio.** Izen berezi batez izendatutako organizazio edo pertsona-taldea, autonomia osoz jarduten duena edota hala jardun dezakeena. (*Corporate body*)
- Sarrera.** Artxibo-deskribapen bat bilatu, identifikatu eta aurkitzeko erabiltzen den izena, terminoa, gako-hitza, hitz-multzoa edo kodea. (*Access point*)
- Serie.** Artxibo-sistema jakin baten arabera antolatutako dokumentu-multzo bat, dokumentu-unitate konposatuak edota bakunak osatuz gordetakoak, bilketa, artxibatze-prozesu edo jarduera beraren ondorioz, ezaugarri berak dituztelako nahiz ekoizpenarekin, eskuratzeko moduarekin edo erabile-rekin zerikusia duen loturaren bat dutelako. Serieari dokumentu-serie ere esaten zaio. (*Series*)
- Zaintza.** Dokumentuen zainketaren gaineko ardura; jabetza fisikoan oinarritzen da eta sarritan ez du zerikusirik izaten jabetza juridikoarekin edo dokumentuen irisgarritasuna kontrolatzeko eskubideekin. (*Custody*)

1. MAILA ANITZEKO DESKRIBAPENA

1.1. *SARRERA*

Funtsa lehenbiziko maila bezala deskribatzen denean, aurrerago, dokumentu honen 3. atalean, zehazten diren elementuak erabili behar dira deskribapena adierazterakoan. Funtsa osatzen duten zatiak ere banan-banan deskriba daitezke 3. atalean ezarritako elementuak erabiliz. Deskribapen horiek guztiak baturik, euren arteko lotura hierarkikoak adierazita A-1 eranskinean ezarritako moduan, funtsa eta deskribatutako zatiak irudikatzen dira. Arau hauen arabera, deskribapen-teknika horri **maila anitzeko deskribapen** deitzen zaio.

Deskribapen-hierarkia ezartzerakoan, 2.1 ataletik 2.4 atalera bitartean zehazten diren lau arau oinarritzkoak aplikatu behar dira.

2. MAILA ANITZEKO DESKRIBAPENERAKO ARAUAK

2.1. *OROKORRETIK ESPEZIFIKORAKO DESKRIBAPENA*

Helburua:

Funtsaren eta funtsa osatzen duten zatien testuingurua eta egitura hierarkikoa adieraztea.

Araua:

Funtsari dagokion mailan, funts osoari buruzko informazioa azalduko da. Hurrengo mailetan, deskribatu beharreko zatiei buruzko informazioa emango da. Deskribapen horiek guztiak funts osoaren eta zatien arteko erlazio hierarkikoan azalduko dira, orokorretik, funtsetik, hasi eta partikularrera eginez.

2.2. *DESKRIBAPEN-MAILARI DAGOKION INFORMAZIOA*

Helburua:

Deskribapen-unitatearen testuingurua eta edukia zehatz-mehatz adieraztea.

Araua:

Deskribatu beharreko mailari dagokion informazioa baino ez da azalduko. Adibidez, deskribapen-unitatea funts bat bada, ez da dokumentu-multzoen edukiari buruzko informazio zehatza emango, eta deskribapen-unitatearen ekoizlea departamentu jakin baten sail edo atal bat bada, ez da departamentu osoaren historia adieraziko.

2.3. *DESKRIBAPENEN ARTEKO LOTURAK*

Helburua:

Deskribapen-unitateak funtsaren hierarkian duen kokagunea adieraztea.

Araua:

Deskribapen bakoitza bere gaineko deskribapen-unitatearekin lotuko da, ahal izanez gero, eta deskribapen-maila identifikatuko da. (Ikus 3.1.4.).

2.4. *INFORMAZIOA EZ ERREPIKATZEA*

Helburua:

Hierarkikoki erlazionatutako deskribapen-unitateetan informazioa ez errepikatzea.

Araua:

Goragoko mailan, osagai diren zatiei buruzko informazio komuna azalduko da. Beheko mailan ez da errepikatuko dagoeneko goragokoan azaldu den informazioa.

3. DESKRIBAPENAREN ELEMENTUAK

3.1. IDENTIFIKAZIOAREN EREMUA

3.1.1. Erreferentzia-kodea(k)

Helburua:

Deskribapen-unitatea ezaugarri bereizle baten bidez identifikatzea eta dagokion deskribapenarekiko lotura ezartzea.

Araua:

Identifikazio bereizle horretarako beharrezkoa den heinean, honako elementu hauek adieraziko dira:

- herrialdearen kodea, **ISO 3166**¹¹ *Codes for the representation of names of countries* arauaren bertsio eguneratuaren arabera ezarritakoa;
- artxiboaren kodea —artxiboen kodigoetarako tokian tokiko arauan ezarritakoaren arabera— edo kokalekuaren bestelako identifikatzaile bakar bat;
- tokian tokiko erreferentzia-kode berezia, kontrol-zenbakia edo beste identifikatzaile bat.

Hiru elementu horiek jakinarazi beharko dira beti nazioarteko informazio-trukerako.

Adibideak:

CA OTY F0453 (*Funtsa*)
Kanada, York University Archives

CA OONAD R610-134-2-E (*Funtsa*)
National Archives of Canada

US MnHi P2141 (*Funtsa*)
AEB, Minnesota Historical Society

US DNA NWDNC-77-WDMC (*Seriea*)
U.S. National Archives & Records Administration

AU A:NLA MS 8822 (*Funtsa*)
National Library of Australia

FR CHAN/363 AP 15 (*Dokumentu-unitate konposatua*)
Frantzia, Centre historique des Archives nationales

FR AD 53/234 J (*Funtsa*)
Frantzia, Archives départementales de la Mayenne

FR AN 320 AP (*Funtsa*)
Direction des archives de France

¹¹ ISO 3166 Herrialdeen izenak adierazteko kodeak.

IT AS FI

Italia, Archivio di Stato di Firenze

Oharra: *Reference code for a repository*

II/36/4 (Dokumentu-unitate konposatuaren zatia)

Italia, Istituto Storico della Resistenza in Toscana

IT ISR FI

Italia, Istituto Storico della Resistenza in Toscana

Oharra: *Reference code for a repository*

BR AN SA (*Funtsa*)

Brasil, Arquivo Nacional

ES AGS

Espania, Archivo General de Simancas

Oharra: *Código correspondiente a un archivo-institución*

ES AGS M.P. y D. XVIII-130 (*Dokumentu-unitate bakuna*)

Espania, Archivo General de Simancas

ES AGI CORREOS (*Funtsa*)

Espania, Archivo General de Indias

3.1.2. Izenburua

Helburua:

Deskribapen-unitatea izendatzea.

Araua:

Dokumentuaren izenburu formala jasoko da edo, bestela, izenburu labur bat esleituko zaio maila anitzeko deskribapenerako arauetara eta tokian tokiko arauetara jarraiki.

Izenburu formala luzea denean, beharrezkoa izanez gero, laburtu egin daiteke, betiere funtsezko informazioa galarazi gabe.

Izenburu esleitua erabiltzen bada, ekoizlearen izena adierazi behar da goragoko mailan. Beheragoko mailatan, dokumentuaren egilearen izena edo deskribapen-unitatearen dokumentuak zein motatakoak diren adieraz daiteke eta, hala badagokio, funtzioa, jarduera, helburua, koka-pena edo gaia zehatz daiteke.

Dokumentuan ageri den izenburu formala eta izenburu esleitua bereiztuko dira tokian tokiko arauak edo dagokion hizkuntzaren arauak ezarritakoari jarraiki.

Adibideak:

Helen Lucas fonds (*Funtsa*)

The Christmas Birthday Story production records (*Seriea*)

The Christmas Birthday Story (*Dokumentu-unitate bakuna*)

Kanada, York University Archives

St. Anthony Turnverein organizational records (*Funtsa*)

AEB, Minnesota Historical Society

Papers of J. Lawton Collins (*Funtsa*)

Appointment Books, 1948-1955 (*Seriea*)

U.S. National Archives & Records Administration

Records of the Patent and Trademark Office (*Funtsa*)

Patent Application Files, 1837-1918 (*Seriea*)

U.S. National Archives & Records Administration

Advertising and publicity materials (*Seriea*)

AEB, University of North Carolina at Chapel Hill

Courts-Martial files [including war crimes trials], single number *Seriea* (*Seriea*)

National Library of Australia

Court-Martial of 3490 Corporal R.C. Taplin, 1st Battalion, Australian Infantry Forces (*Dokumentu-unitate konposatua*)

National Library of Australia

Papers of Edward Koiki Mabo (*Funtsa*)

National Library of Australia

Châtelet de Paris (*Funtsa*)

Parc civil (*Azpfifuntsa*)

Actes faits en l'hôtel du lieutenant civil (*Seriea*)

Suppliques au lieutenant civil (*Azpiseriea*)

Demandes de création de curateur à succession, vu la renonciation des héritiers à celle-ci (*Dokumentu-unitate konposatua*)

Succession Guérin (*Dokumentu-unitate bakuna*)

Frantzia, Centre historique des Archives nationales

«Affari risoluti» (*Seriea*)

Italia, Archivio di Stato di Firenze

Oharra: *Formal title*

«Filza 1» (*Dokumentu-unitate konposatua*)

Italia, Archivio di Stato di Firenze

Oharra: *Formal title for a file of the series «Affari risoluti» named above, according to the multilevel description rules*

Materiali di studio sulla politica estera italiana durante la prima guerra mondiale: documenti diplomatici dall'archivio di Carlo a Prato (*Dokumentu-unitate konposatua*)

Italia, Istituto Storico della Resistenza in Toscana

Oharra: *Supplied title*

Góes Monteiro (*Funtsa*)

Brasil, Arquivo Nacional

«La planta de la plaza y puerto de la Coruña y castillos de San Antón, San Diego y Santa Cruz», por don Juan Manso (*Dokumentu-unitate bakuna*)

Espainia, Archivo General de Simancas

Correos (*Funtsa*)

Espainia, Archivo General de Indias

Consejo de Inquisición (*Funtsa*)

Secretaría de Aragón (*Azpfifuntsa*)

Pleitos de competencias (*Seriea*)

Pleitos de competencias del Tribunal de Cartagena de Indias (*Azpiseriea*)

Pleito de competencias con la Audiencia de Cartagena de Indias (*Dokumentu-unitate konposatua*)

Espainia, Archivo Histórico Nacional

3.1.3. Data(k)

Helburua:

Deskribapen-unitatearen data(k) identifikatu eta jasotzea.

Araua:

Deskribapen-unitate bakoitzeko gutxienez honako data hauetako bat erabiliko da, kasuan kasu dokumentuei eta deskribapen-mailari ondoen egokitzen zaiena:

- 1) Ekoizleak bere jardunean edo bere eginkizunean dokumentuak bildu zitueneko data(k).
- 2) Dokumentuak ekoiztu zireneko data(k). Eremu honetan, deskribapen-unitatea bildu aurretik egin ziren kopien, edizioen edo bertsioen, eranskinen nahiz jatorrizkoen datak adieraziko dira.

Erabili den data-mota zein den adieraziko da. Nahi izanez gero, tokian tokiko arauak ezarritako beste data batzuk erabili eta identifikatu daitezke¹².

Kasuan kasu dagokionaren arabera, data bakarra nahiz data-tarte bat adieraziko da. Data-tarreetan jarritako datak barne hartzen direla ulertu behar da, salbu eta deskribapen-unitatea itxi gabeko espediente bat edo haren parte bada.

Adibideak:

[c.1971]-1996 (*Funtsa*)
Kanada, York University Archives

1976-1989 (*Funtsa*)
Kanada, York University Archives

1980 (*Dokumentu-unitate bakuna*)
Kanada, York University Archives

1852 March 23 (*Dokumentu-unitate bakuna*)
AEB, Minnesota Historical Society

1860-1865 (dates of creation of the material) (*Seriea*)
U.S. National Archives & Records Administration

Oharra: *Example taken from a series entitled «Mathew Brady Photographs of Civil War-Era Personalities and Scenes». While the photographs were taken between 1860 and 1865, it was not until 1921 that the Office of the Chief Signal Officer secured custody of the collection. The 1921 date has been used to establish the date of accumulation for this series of records.*

1833-1998 (bulk 1833-1874) (*Funtsa*)
AEB, University of North Carolina at Chapel Hill

1943, 1959-1992 (predominant 1972-1992) (*Funtsa*)
National Library of Australia

1790-An VIII (*Funtsetik hasi eta dokumentu-unitate konposatura arteko deskribapen-maila guztiak*)
Direction des archives de France

1907-1949 (*Funtsetik hasi eta dokumentu-unitate konposatura arteko deskribapen-maila guztiak*)
Direction des archives de France

¹² Beharrezkoa izanez gero, datak adierazteko arau hau erabiltzea gomendatzen da: **ISO 8601: 1988** — Data elements and interchange formats — Information interchange — Representation of dates and times (*Datu-elementuak eta formatuen trukea* — *Informazio-trukea* — *Daten eta orduen adierazpena*).

1923-1932, 1936-1945 (manque 1933 à 1935) (*Funtsetik hasi eta dokumentu-unitate konposatura arteko deskribapen-maila guztiak*)
Direction des archives de France

1120, 1640-1780 (*Dokumentu-unitate konposatua*)

Direction des archives de France

Oharra: *An item of 1120 in a file of 1640 to 1780*

1120 [copie XVIIIe] (*Dokumentu-unitate bakuna*)

Direction des archives de France

Oharra: *Transcript of a XVIIIth. century deed of 1120*

Fine anni '30-primi anni '40 (*Dokumentu-unitate konposatua*)

Italia, Istituto Storico della Resistenza in Toscana

Oharra: *Dates of accumulation for a file*

Gli originali dei documenti in copia sono datati ago. 1914 - feb. 1919 (con prevalenza di documenti del 1914-1915) (*Dokumentu-unitate konposatuaren zatia*)

Italia, Istituto Storico della Resistenza in Toscana

Oharra: *Dates of the original documents comprised in the subfile of the file, whose accumulation dates are indicated above*

sec. XIII -1777, con copie di documenti dal 1185 (*Funtsa*)

Italia, Archivio di Stato di Firenze

Oharra: *Dates for a fonds containing some XIII century documents which are copies of more ancient records*

1904-1960 (*Funtsa*)

Brasil, Arquivo Nacional

1752-1839 (*Funtsa*)

Espainia, Archivo General de Indias

1713 09 15 (*Dokumentu-unitate bakuna*)

Espainia, Archivo Histórico Nacional Sección Nobleza

Mitad del siglo VIII-1834 (*Funtsa*)

Espainia, Archivo de la Real Chancillería de Valladolid

3.1.4. Deskribapen-maila

Helburua:

Deskribapen-unitatearen antolakuntza-maila identifikatzea.

Araua:

Deskribapen-unitatearen maila adieraziko da.

Adibideak:

Funtsak

Azpifuntsak

Serieak

Azpiserieak

Dokumentu-unitate konposatua/Espedientea

Dokumentu-unitate bakuna/Dokumentua

3.1.5. Deskribapen-unitatearen tamaina eta euskarria (kopurua edota neurriak)

Helburua:

Honako hau identifikatu eta deskribatzea:

a) tamaina fisiko edo logikoa eta

b) deskribapen-unitatearen euskarria

Araua:

Deskribapen-unitatearen tamaina jasoko da, unitate fisiko edo logikoen kopurua zenbaki arabiarratan adierazita eta neurri-unitatea zehaztuta. Deskribapen-unitatearen euskarria edo euskarriak adieraziko dira.

Nahi izanez gero, deskribapen-unitateak hartzen dituen apalen luzera, metro linealetan, edo unitatearen metro kuboak adieraz daitezke. Deskribapen-unitatearen tamaina metro linealetan adieraziz gero, informazio gehigarria jasotzea komeni dela ikusten bada, informazio hori parentesi artean jasoko da.

Adibideak:

13 containers of graphic material and textual records (*Seriea*)
Kanada, York University Archives

103.5 cubic feet (98 boxes) (*Funtsa*)
AEB, Minnesota Historical Society

1 folder, containing 38 items (*Dokumentu-unitate konposatua*)
AEB, Minnesota Historical Society

5 folders and 2 audio cassettes (*Funtsa*)
AEB, Minnesota Historical Society

143 rolls of microfilm, 35mm (*Seriea*)
U.S. National Archives & Records Administration

27 data processing files on magnetic tape (*Seriea*)
U.S. National Archives & Records Administration

130 items (0.5 linear ft.) (*Funtsa*)
AEB, University of North Carolina at Chapel Hill

2.7 metres (19 boxes + 1 oversized item) (*Funtsa*)
National Library of Australia

30 m.l. (*Azpisieriera arteko deskribapen-maila guztiak*)
Direction des archives de France

60 fascicoli (*Azpiifuntsa*)
Italia, Istituto Storico della Resistenza in Toscana

1346 filze e registri (*Funtsa*)
Italia, Archivio di Stato di Firenze

Documentos textuais: 2,21 m (*Funtsa*)
Brasil, Arquivo Nacional

895 unidades de instalación (*Funtsa*)
Espainia, Archivo General de Indias

11 documentos (*Dokumentu-unitate konposatua*)
Espainia, Archivo Histórico Nacional

51 cartas (*Seriea*)
Espainia, Archivo Histórico Provincial de Álava

Nahi izanez gero, deskribapen-unitatea funts osatugabea (edota funts osatugabe baten zatia) denean, data jakin batean ezagutzen zaion edo artxiboan zaintzen den dokumentazioaren tamaina adieraz daiteke.

Adibidea:

128 photographs (at 6 Feb. 1990) **In custody:** 58 photographs

3.2. TESTUINGURUAREN EREMUA

[Eremu honetako datu batzuk, hala nola, ekoizle(ar)en izena(k), korporazioaren historia edo datu biografikoak, aplikazio batzuetan, autoritate-sareren fitxategietan jaso daitezke. Ikus I.14.]

3.2.1. Ekoizle(ar)en izena(k)*Helburua:*

Deskribapen-unitatearen ekoizlea edo ekoizleak identifikatzea.

Araua:

Deskribapen-unitatearen dokumentuak ekoiztu, bildu eta kontserbatu dituzten korporazio(en) edo pertsona fisiko(ar)en izena(k) adieraziko dira. Izena era normalizatuan idatzi beharko da, dagokion herrialdeko eta nazioarteko arauetara eta ISAAR(CPF)ren printzipioei jarraiki.

Adibideak:

Lucas, Helen (1931-) (*Funtsa*)
Kanada, York University Archives

Great Northern Railway Company (U.S.) (*Funtsa*)
AEB, Minnesota Historical Society

Minnesota. Attorney General. Charities Division (*AzpiFUNtsa*)
AEB, Minnesota Historical Society

Department of the Treasury (*Funtsa*)
U.S. National Archives & Records Administration

Johnson, Lyndon B. (Lyndon Baines) (*Funtsa*)
U.S. National Archives & Records Administration

Ballard, Rice C. (Rice Carter) d. 1860. (*Funtsa*)
AEB, University of North Carolina at Chapel Hill

Mabo, Edward Koiki (1936-1992) (*Funtsa*)
National Library of Australia

Conseil national de la Résistance (1943-1944) (*Funtsa*)
Frantzia, Centre historique des Archives nationales

Châtelet de Paris, Chambre de police (*AzpiFUNtsa*)
Frantzia, Centre historique des Archives nationales

Gaetano Salvemini (*Funtsa*)
Italia, Istituto Storico della Resistenza in Toscana

Segreteria di Stato (Granducato di Toscana, 1737-1808) (*Funtsa*)
Italia, Archivio di Stato di Firenze

MONTEIRO, Pedro Aurélio de Góes (*Funtsa*)
Brasil, Arquivo Nacional

Consejo Real de España e Indias (*Funtsa*)
Espainia, Archivo General de Simancas

Dirección General de la Renta de Correos (*Funtsa*)
Espainia, Archivo General de Indias

Reparaz Rodríguez, Gonzalo de (*Funtsa*)
Espainia, Archivo General de la Guerra Civil Española

3.2.2. Korporazio(ar)en historia/Datu biografikoak

Helburua:

Deskribapen-unitatearen ekoizlearen edo ekoizleen historia edo biografia azaltzea, dokumentuak bere testuinguruan kokatu eta hobeto ezagutarazteko.

Araua:

Deskribapen-unitatearen ekoizle d(ir)en korporazio(ar)en sorrerari, bilakaerari, garapenari eta jardunari buruz edota deskribapen-unitatearen ekoizle d(ir)en pertsona fisiko(ar)en bizitza eta lanari buruz garrantzitsuak izan daitezkeen datuak azalduko dira era laburrean. Argitalpenen batean horri buruzko informazio gehigarririk egonez gero, iturria aipatu behar da. ISAAR (CPF)ren informazio-eremuetan elementu honetan jaso daitezkeen datu espezifikoak jasota daude. Pertsonen edo familien kasuan jaso beharreko datuak dira izen osoak, tituluak, jaiotza-eta heriotza-datak, jaioterria, bizilekuak, jarduerak, lanbideak edo karguak, jatorrizko izena eta bestelakoak, halakorik badago, bizipen garrantzitsuak eta heriotza-tokia.

Adibideak:

Helen Lucas, Canadian artist, was born in 1931 in Weyburn, Saskatchewan, studied at the Ontario College of Art (Toronto) from 1950-1954 and was Drawing and Painting Master at Sheridan College (Oakville, Ont.) from 1973-1979. She has exhibited her art works widely in Canadian cities. She works from her Gallery in King City. In 1991 York University awarded her a Doctor of Letters (Honoris Causa). (*Funtsa*)
Kanada, York University Archives

Dwight P. Griswold was born in Harrison, Nebraska in 1893. He served in the Nebraska legislature during the 1920s and was governor of Nebraska from 1941 to 1947. He served as chief of the American Mission for Aid to Greece (AMAG) from June 14, 1947 to September 15, 1948. (*Funtsa*)
U.S. National Archives & Records Administration

Chang and Eng Bunker, the original Siamese twins, married sisters Sarah and Adelaide Yates in 1843 and established homes and families in Wilkes County and later Surry County, N.C. (*Funtsa*)
AEB, University of North Carolina at Chapel Hill

Louis Hémon est un écrivain français né à Brest en 1880 et mort à Chapleau (Canada, Ontario) en 1913. Après des études de droit à la Sorbonne, il vécut huit ans en Angleterre, puis s'établit au Canada en 1911, vivant à Montréal et dans une ferme à Péribonka (Lac Saint-Jean). Pendant sa courte carrière, il rédigea plusieurs livres et articles dont le plus célèbre est Maria Chapdelaine : récit du Canada français, publié en 1916. (*Funtsa*)
Direction des archives de France

Jean-François Bournel (1740-1806), homme de loi à Rethel, député des Ardennes à la Législative, nommé en 1800 commissaire près le tribunal civil de sa ville, puis procureur impérial. (*Funtsa*)
Frantzia, Centre historique des Archives nationales

Gaetano Salvemini nacque a Molfetta l'8 settembre 1873. Compiuti gli studi ginnasiali e liceali in seminario, per la mancanza di mezzi economici della famiglia, nel 1890 vinse una borsa di studio presso l'Istituto di studi superiori pratici e di perfezionamento di Firenze dove si laureò con una tesi su La dignità cavalleresca nel Comune di Firenze. L'intensa produzione scientifica gli valse, nel 1901, il conseguimento della cattedra di storia medievale e moderna all'Università di Messina. Il forte impegno politico all'interno del Partito socialis-

